



Administrazio elektronikoa eraldatzeko prozesuan laguntzeko barne-kanalak

Administrazio elektronikoaren prozesu eraldatzailea

Zerbitzu publiko elektronikoen eskaintza eraldatzeko, langile publikoei lagundu behar zaie. Hala, barne-eremurako, Administrazio honek honako baliabide hauek eratu ditu:

- Izapidetze Elektronikorako Plataforma Komunaren erabileraren Tutoretza Zerbitzua.
- Zerbitzu Elektronikoen Erabiltzaileen Arretarako Zentroa.

Izapidetze Elektronikorako Plataforma Komunaren erabileraren Tutoretza Zerbitzua



Administrazioak zerbitzu eta prozedura elektronikoei arreta eta laguntza emateko baliabide berri bat eratu du, enplegatu publikoentzat, Izapidetze Elektronikorako Plataforma Komunaren Erabileraren Tutoretza Zerbitzua.

Administrazio elektronikoari eta Izapidetze Elektronikorako Plataforma Komunekeo tresnei dagokienez, zerbitzu horrek eginkizun hauek ditu:

- a) Enplegatu publikoen kontsultei erantzutea kanal guztietan, eta izapidetze elektronikoko atazak gauzaten laguntzea.
- b) «Jakingune» ikaskuntza partekatuko eta elkarlaneko espazioa kudeatzea; bertan, baliabide didaktikoak argitaratu eta etengabe eguneratuta mantenduko dira.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren Zerbitzu Elektronikoen Sarea eta Administrazio Instituzionala kudeatzea.
- d) Prestakuntza-ekintza informalak antolatzea eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin lankidetzan aritzea erakundearen prestakuntza-jardueretan.

- Barruko telefonoa: 109999
- Telefono bidezko arreta ordutegia: 9.30etatik 13.30etara
- Posta elektronikoa: tutoretzazerbitzua@euskadi.eus

Zerbitzu Elektronikoen Erabiltzaileen Arretarako Zentroa – Zerbitzu Elektronikoen CAU



Zerbitzu publiko elektronikoen sarbidea eta erabilera errazteko, Zerbitzu Elektronikoen Erabiltzaileen Arretarako Zentroa (CAU) eratu da.

Horrela, Zerbitzu Elektronikoen CAUk laguntza ematen du pertsonak kanal elektronikoa erabiltzerakoan izan ditzaketen gorabehera teknikoetan. Zerbitzu hori enplegatu publikoei zein herritarrei eskaintzen zaie.

- Zuzenean zerbitzuarekin harremanetan jartzea - Herritarrentzako arreta 012 telefonoaren bidez
- Izapidetze elektronikoa dauden arazo teknikoetarako, jarri harremanetan Erabiltzaileentzako Arreta Zentroarekin 945 01 68 38 telefono-zenbakira deituta.
- Mezu bat bidaltzea [Euskadi.eus-eko postontziaren](mailto:Euskadi.eus-eko.postontziaren) bidez